

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Hutsa zuzentzea 2019-1757 iragarkian, "A-3112 errepidea Egiletan, 13,10 km-aren eta 13,47 km-aren artean, egokitu eta trazadura hobetzeko proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko informazioari buruzkoan

Hutsa hautemanenez 2019-1757 iragarkian, 2019ko ekainaren 7ko ALHAOn (66. zk.) argitaratuan, osorik argitaratzen da.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 11

Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren burua
DANIEL MARTÍNEZ MONGE

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

"A-3112 errepidea Egiletan, 13,10 km-aren eta 13,47 km-aren artean, egokitu eta trazadura hobetzeko proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendaren jendaurreko informazioa

Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko maiatzaren 21eko 334/2019 Erabakiaren bidez, "A-3112 errepidea Egiletan, 13,10 km-aren eta 13,47 km-aren artean, egokitu eta trazadura hobetzeko proiektua" k eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari hasierako onarpena eman zaio.

Hori dela eta, indarrean dagoen Nahitaezko desjabetzearen Legeak 17. eta 18. artikuluetan eta lege hori garatzen duen Arautegiak 17. artikuluan ezarritakoaren babespean, aipatutako zerrenda jendaurrean jarriko da 15 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe horren barruan, argitaratutako zerrendan izan litezkeen akatsak zuzentzeko datu egokiak idatziz aurkeztu ahal izango ditu edonork, edo okupatu beharraren aurka ere agertu ahal izango da, funtseko nahiz formako arrazoiengatik. Azken kasu honetan, adierazi beharko du zergatik jotzen duen egokiagotzat, lortu nahi den helbururako, azaldutako zerrendan jasotzen ez diren beste ondasun batzuk okupatzea edo beste eskubide batzuk eskuratzea.

Interesaturik dauden erakunde, entitate, korporazio nahiz partikularrek eskuragarri dituzte lurzatiaren planoak eta eragindako titularren zerrenda Alegria-Dulantziko Udaletxeko ediktu taulan eta Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuan, horiek aztertu eta, bidezko izanez gero, alegazioak egin ahal izateko. Alegazioak, ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dituzte, ale bikoitzez, Foru Aldundi honetako Erregistro Orokorrean, bulego orduetan, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Lege eta Administrazio Zerbitzuari zuzenduta (Probintzia Plaza 4-6. solairua, 01001 Vitoria-Gasteiz.)

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 30a

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

A-3112 ERRENDA EGILETA, 13,10 KWAREN ETA 13,27 KWAREN ARTIAN, EGOKITU ETA TRAZADURA HOBETZEKO PROIEKTUA
 PROYECTO DE ACONDICIONAMIENTO Y MEJORA DE TRAZADO DE LA CARRETERA A-3112, ENTRE EL P.K. 13,10 Y EL P.K. 13,27, EN EGILETA

FINKAREN ZK.	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	ARROBATAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m ²		Esp./Expte. 2019/8
		POLIGONO	PARCELA				BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES	LURZATIA	TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	SUPERFICIE AFECTADA m ²	ZORTASUNA	SERVIDUMBRE
1/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGILETA	2	92	ALEGRIA-DULANTZI	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO		438		
2/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGILETA	2	134	ALEGRIA-DULANTZI	ETZEZA / BRIAL		966		
3/000	EPANIA LOPEZ DE ABECHICO BETIA	2	129	ALEGRIA-DULANTZI	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO		105		
4/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE EGILETA	2	135	ALEGRIA-DULANTZI	ETZEZA / BRIAL		840,76		
5/000	M. ESTHER QUINTANA GARCIA DE VICUNA M. ANGELES QUINTANA GARCIA DE VICUNA M. ASCENSION QUINTANA GARCIA DE VICUNA M. ARANZAZU QUINTANA GARCIA DE VICUNA	2	124	ALEGRIA-DULANTZI	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO		870		
6/000	M. ESTHER QUINTANA GARCIA DE VICUNA M. ANGELES QUINTANA GARCIA DE VICUNA M. ASCENSION QUINTANA GARCIA DE VICUNA M. ARANZAZU QUINTANA GARCIA DE VICUNA	2	123	ALEGRIA-DULANTZI	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO		10		